

# BERRIGARA

99. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1997, azaroak 14




120 bergarar korrikalari

## Behobiatik Donostiara



Azaroaren 21ean, ostirala, inauguratuko dugu, 19:00etatik 21:00etara




Amillaga 5 • Tf. 76 40 68 • BERGARA

RENAULT

# VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara  
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate

*Zure ongizatea  
babesteko gaude*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**

**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**

**EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.**

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**

**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**

**Bergarako dendari eta ostalarien elkarteak**

**Opel Corsa** bat zozketatzen du

**bezeroen artean**



1998ko urtarrilaren 5ean zozketatuko den "El Niño" loteriaren lehen sariaren bost zenbakiekin bat datorren txartela izango da sariduna.



## BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA  
48017 Bergara  
Tel: 76 03 97  
Fax: 76 29 77

## Argitaratzailea:

BERDUN Elkarte

## Zuzendaria:

Agustín Azkarate

## Erredakzioa:

Agustín Mendibil  
Agustín Elkoroberezibar

## Maketazioa:

Agustín Hurbé

## Publizitatea:

Agustín Romero

## Harpidetzak:

Agustín Elortza

## Posten zuzenketak:

Agustín Plazaola

Agustín Laskurain

Agustín Labaien

## Erredakzio kontseilua:

Agustín Elortza

Agustín Angel Elkoroberezibar

Agustín Labaien

## Kamikiak:

Agustín Rodríguez

Agustín Ortega & Jon Alvarez

Agustín Ugaldé

Agustín Azkarate

## Banaketa:

Agustín Xangorri taldea

## Dirua:

Agustín ale

## Primategia:

Agustín Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

## Copyright:

BERRIGARA

## Laguntza gordailua:

Agustín 50/91

## ISSN:

Agustín 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## ESTEPAN PLAZAOLA

## Udaleko Euskara Zerbitziburua

- Herritarrek Udalarekin harremanak euskaraz izateko liburuxka bat kaleratu duzue...

- Bai, "Udalarekin euskaraz" kanpainaren barruan kaleratu da liburuxka hori eta Udalarekin harremanak euskaraz izateko eskaera egin zuten guztiei (4.000 lagun inguru dira denera) banatuko zaie datozen egunetan. Familia bakoitzean horrelako liburu bat egotea nahi dugu eta helburu horrekin 2.500 ale kaleratu dira. Etxez-etxe banatuko da eta kanpainaren helburu herritarrek Udalarekin euskaraz jardutea izango litzateke.

- Zer aurkitu ahal izango da liburuxkan?

- Alde batetik Udaleko idatzietan erabiltzen diren hitz batzuren hiztegia



izango da; bestetik administrazio agiriak ulertzeko azalpenak; herriko kaleen izenak zuzen idatzita ere jaso ditugu; herritarrek administrazioa euskaraz zuzentzeko ereduak ere bai... Udal barruan euskararen erabilera nahiko maila altuan bermatuta dago eta herritarrekin ere beste horrenbeste lortzeko asmoa daukagu.

**"Herritarrek Udalarekin euskaraz jarduteko liburuxka bat kaleratu dugu"**

## I T U R R I O N E T I K

## Xabier Montoia, Zein eta Chucho abenduaren 26an Jam aretoan

Datorren abenduaren 26an, Udazken Kulturalako programaren barruan, Zein, Chucho eta Xabier Montoiaren taldeek rock kontzertua emango dute Bergarako Jam aretoan. Montoiak "Hemen" bere azken diskoa aurkeztuko du Bergaran eta Zein eta Chucho taldeek ere bere azken lanak joko dituzte Amilagako aretoan. Zein taldea lehengo Ama say taldeko hainbat lagunez osatuta dago eta Chucho taldeko liderra, berriz, Fernando Alfaro, Surfin Bichos taldeko abeslaria eta kitarra izandakoa dugu. Kontzertua Udazken Kulturalaren barruan antolatzean, sarrerek nahiko prezio merkean jarri nahi izan dira eta 500 pezetan salduko dira.

E S A N  
D U T E

"Herri Batasunako mahaikideon kontra juridikoki ez dago argumentorik.

Akusazioa guztiz politikoa da. Guk

hau kezka handiarekin ikusten dugu. Jakin badakigu izugarritzko presioak daudela magistratuen

aurrean, Barne Ministeritzatik datozen aginduak betetzeko presioak.

Datu zehatzak badauzkagu zentzu

honetan, eta komunikabide batzuk atera beharko dituzte azkenean.

Pertsona batzuk ministeritzaren izenean ari dira presionatzen.

Jakin dugunez hiru magistratuetatik bat errugabetasunaren alde dago, bestea aurka eta hirugarrena zalantzan dago orain.

Hirugarren honek jaso dituen presioak izugarriak izan dira, beraz ez dakigu zer gerta daitekeen.

Komunikabideek epaiketari eman dioten tratamenduari buruz, dakigunez, kazetari askok Mayor

Oreja ministroari deitzen diote zein kontsigna eraman behar duten jakiteko"

JOSE LUIS  
ELKORO

HBko Mahai Nazionaleko kidea  
EXTRA Deba Garaiko kazeta



### LA CAMARERA DEL TITANIC

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 22:00 (Ikuslearen eguna).



### ANACONDA

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30.



### TOCANDO EL VIENTO

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

## Zinea

▼▼ **Bigas Luna** zuzendari katalanak (*Jamon, jamon, Huevos de oro*) kritikaren oniritzia jaso du *Bambola* bere azken filmearekin izandako porrotaren ondoren. Oraingo honetan 1912 urteko Frantzia girotutako amodiozko istorio bat landu du, Titanic itsasuntziaren inaugurazioa aitzakiatzat hartuz. **Aitana Sanchez-Gijon** eta **Olivier Martinez** aktoreekin.

▼▼ "Arnasarik ezin baduzu hartu, ezin duzu oihurik egin", dio publizitateak eta hori irakurrita hau ez da lasai-lasai ikusten den filme horietako bat. **Luis Llosaren** zuzendaritzapean, **John Voight, Jennifer Lopez, Jonathan Hyde** edota **Eric Stoltz** aktoreek osatzen duten zientifiko taldeak 12 metroko anakonda bati aurre egin beharko dio...

▼▼ **Mark Hermanek** zuzendutako komedia honetan industria krisialdi larria jasaten ari den komunitate bateko musika talde baten gorabeherak azaltzen zaizkigu. *Gloriaren* (**Tara Fitzgerald**) etorrerak indar berria emango dio taldeari... **Ewan McGregor** (*Trainspotting*) eta **Pete Postlethwaite** (*En el nombre del padre*) aktoreen partaidetzarekin.

## Deiak

▼ **1970**ean jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen bazkaria hilaren 29an. Izen-ematea Kortazarren.

▼ **1945**ean jaiotakoen afaria hilaren 29an Antxonin. Izen-ematea bertan.

▼ **1944**an jaiotakoen afaria hilaren 29an Azpeitxi jaiotzekan. Izen-ematea: 76 42 08 (Arantxa Alberdi).

▼ **Matinala.** "El hijo del presidente" domekan 11:30etan.

▼ **Benito Canteroren** "Paisaiak" argazki erakusketaren inaugurazioa eguenean 20:00etan Pol-Polen.

▼ **Joxean Bilbao**ren oleo erakusketa Andoaingo Ayerbe aretoan abenduaren 1era arte.

## Ogia

▼ **Domeka 16:** Ogizun.

## FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 14:** Camacho.
- ▼ **Zapatua 15:** Puy.
- ▼ **Domeka 16:** Puy.
- ▼ **Astelehena 17:** Guallar.
- ▼ **Martitzena 18:** Estella.
- ▼ **Eguaztena 19:** Mozos.
- ▼ **Eguena 20:** Camacho.



BEREZITASUNAK:  
BIZKOTXOAK  
ERRELENOAK  
TOSTOIAK

MUJIKA GOZOTEGIA

Artekale, 3 BERGARA  
☎ 76 10 34

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

Deco-Textil

# ZANGITU

Etterako lantzeria


Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

# Esteban Elizondo

## Organujole donostiarraren emanaldia bihar San Pedron

Esteban Elizondo organujole donostiarrak kontzertua emango du bihar zapatua 20:00etan San Pedro Parrokian, Udazken Kulturaleko programazioaren barruan. Hasiera batean Esteban Landarten emanaldia zegoen iragarrita biharko baina bi organujoleren kontzertuak egunez trukatu dira. Beraz, bihar Esteban Elizondok joko du San Pedron eta Esteban Landart, berriaz, abenduaren 13an izango da Bergaran ordu eta toki berean.



Esteban Elizondo Donostiako Kontserbatorioko katedraduna da.

### Organu katedraduna

Esteban Elizondo organujole ospetsua dugu. Donostiako Musika Kontserbatorioko piano eta organu sariak jaso izan ditu eta gaur egun bertako organu katedraduna da. Era berean, hiru urtean zehar A. Heiller irakaslearekin batera Vienan musika ikasketak sakondu zituen eta ondoren nazioarte mailako hainbat hobekuntza ikastarotan parte hartu du. Orkestra ezberdinetan bakarlarri gisa ere ibilia da Elizondo eta Europan, Estatu Batuetan edota Japonen emanaldi

ugari eskeini ditu azken urteotan. Organuaren defendatzaile eta bultzatzaile amorratua, bere ekimen eta antolakuntzari esker, 1984tik hona Organu Erromantikoaren Nazioarteko ikastaroa egiten da urtero Donostiako Musika Hamabostal-diaren barruan. Esteban Elizondok hainbat disko grabatu ditu Estatu Batuetako Boston hiriko Titanic Records etxearekin eta nahiz

eta publiko murriz bati zuzendua izan, kritika espezializatuaren aldetik oso harrera ona jaso dute.

### XVIII eta XIX mendeko musika

Pasa den irailaren 6an ere Zumarragako Antigua elizako XIV. Musikaldian hartu zuen parte Elizondok, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko hiru tronpe-

tajoleren laguntzarekin. Orduan XVI. eta XVII. mendeetako musika barrokoa jo bazuen ere, bihar XVIII. eta XIX. mendeetako piezak izango dira nagusi. Kontzertuko egitarauari hasiera emateko joan zen irailaren 27an hil zen Jose Maria Gonzalez Bastida konpositore bergararraren "Largo" lana interpretatuko du Elizondok eta ondorengo piezak honako hauek izango dira: "Korala bariazioekin" (Hieronymus Florentinus Quehl), "Voluntaty VIII" (John Stanley), "Fantasia" (Jose Mari Beobide), "Pieza sinfonica" (Jose Mari Usandizaga), "Berceuse" (Eduardo Torres) eta, azkenik, "Triptico sobre un tema gregoriano" (Tomas Garbizu). Biharko emanaldirako sarrera debaldekoa izango da, San Pedron izaten diren emanaldietan gertatzen den moduan.

Datorren astebukaeran Udazken Kulturaleko bi emanaldi izango dira: alde batetik, Gernikako Andra Mari Korala zapatuan Santa Marinar; bestetik, Udal Musika Bandaren Santa Zeziliako kontzertua domekan.

## Elizondok Jose Maria Gonzalez Bastida zenaren lan bat joko du kontzertuaren hasieran

ARRANO



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA



DEBA

**GARAIA**

**INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

## Megafonia eskasa

Orain hurrengoan Udaletxeko pleno batera joatea okurritu zitzaidan, kuriositatea bainekuan zelakoak izango ziren batzar horiek. Pleno aretora ailegatu eta sorpresa haundia hartu nuen ikusle edo entzuleei zuzendutako tartean hain jende gutxi ikustean (periodista batzuk eta beste lau bat lagun besterik ez zeuden). Harrigarria. Hain jende gutxiri interesatzen zaio bertan tratatzen dena? Nik usate nuen jende gehiagok zuela plenoetara joateko ohitura.

Plenoa hasi eta gure politikoak gai diferenteak tratatzen hasi zirenean, han ez zegoen (entzuleen partetik behinik behin) ezer ulertzerik. Alde bateko eta besteko kontzejalak ezbaika hasten baziren ere, ikusleok ez genekien zertaz diskutitzen ari ziren. Pleno aretoa oso dotore laga dute Udaletxean egin ziren berrizte lanak bukatu ondoren baina megafonia sistema oso eskasa da. Jarlekuetatik ez da ezer entzuten eta gainera oso informazio gutxi ematen da mikrofonoetatik tratatzen ari diren gaiei buruz. Plenoko gai zerrendako puntu bakoitzeko esaldi pare bat esaten dira eta kitto. Jarraian botazioa egiten dute zinegotziek eta hurrengo puntura pasatzen dira.

Tonto aurpegiarekin irten nintzen Pleno aretotik eta hurrengo baterako argitasun pitin bat gehiago izatea eskatu nahi nieke herriko agintariei. Espero dut lerro hauek zerbaitetarako balio izatea. Mila esker.

Luis M.  
NAN: 15.495.309

## Fax zenbaki berria

BERRIGARA eta JARDUNeko fax zenbakia aldatu egin dugu. Mezu, ohar, idatzi eta abarrak faxez gurera bidali nahi izanez gero,

**76 29 77**

zenbakia markatu beharko duzu aurrerantzean. Barkatu eragozpenak.

## Tiira biraka



**BITTOR RODRIGUEZ**

# Frontoiko taberna hartzeko euskara jakitea eskatuko da

**Astelehenean** Udal Pilotalekuko tabernaren alokairua adjudikatzeko baldintza pleguak onartu zituen udalbatzak ahobatez. Halere, Plenoan eztabaida izan zen HBko eta gobernu taldeko zinegotzien artean. Herri Batasunak baldintzetan euskara jakitea eskatzea proposatu zuen. EAJ, EA eta PSE-EEK gaia aztertzeko etenalditxo bat egin ondoren, proposamena onartzea erabaki zuten eta taberna alokatzeko euskara maila Udaleko Euskara Batzardeak zehaztea proposatu zuten; HB ados azaldu zen proposamenarekin. Orain, Euskara Batzardeak euskara maila zehaztu arte, baldintza pleguak ez dira kaleratuko. Euskara eskakizuna zehaztu ondoren baldintza pleguak Boletin Ofizialean publikatuko dira eta eskerak aurkezteko 13 eguneko epea izango da.



Aurrerantzean, Udal pilotalekuan eskuz bakarrik jokatu ahal izango da.

laz jokatu. *“Erabakia eskuzko pilota bultzatzeko hartu dugu. Astean zehar esku pilotan jokatu nahi dutenek, aukera izango dute orduko 1.000 PTA ordainduz gero”* adierazi digu Iñaki Ugarteburu udaleko kirol teknikariak.

Aldagelak eta dutxak erabiltzeko aukera ere izango da. Era berean, 17:00etatik 18:00etara haurrek kantxa doan erabiltzeko aukera izango dute. BKEko pilotariei dago kienez, entrenatzeko orduetan kantxa dohainik izango dute Udal Kirol Zerbitzuko bazkide egiten badira. Partidu ofizialetan, kantxa ordaindu egin beharko dute.

Zabalotegiko eta Osintxuko frontoietan palan jokatzeko aukera badago eta Gabonetan urte osorako orduak hartzeko (600 PTA orduko) epea zabalduko dute. Elorregiko frontoia erabiltzeagatik ez da ordaindu beharrik izango.

## San Antonion lur erosketak

Bestalde, San Migel 3ko orubea eta Urteaga 2ko eraikuntza, La Parra tabernakoa, erostea onartu zuen Udalbatzak aho batez asteleheneko Plenoan; 23 miloi eta erdi bideratuko dira horretarako.

## Frontoiko arautegian aldaketak

Udal Pilotalekuko tabernaren alokairuaz gain, funtzionamenduan ere aldaketak egin dituzte. Hemenetik aurrera, froga moduan, Udal Pilotalekuan ezin izango da pa-

## Odol ateraldia

Odol Emaleen Elkarteak dei egiten du datorren eguastenean 18:30etan egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

## Iñurrategi anaiak Novedadesen

Iñurrategi anaiak Broak-peak mendira egindako azkenengo espedizioaren diapositiba emanaldia izango da astelehenean arratsaldeko 19:00etan Novedades aretoan.

## Irrati ikastaroa

Txapa Irratiak irrati ikastaroa antolatu du bihartik abendura arte. Zapatueta 15:00etatik 17:00etara emango du Maria Gomez kazetariak.

## HILDAKOAK

- Maritere Unzeta**  
Azaroak 4, 76 urte.
- Luis Oregi Larrea**  
Azaroak 5, 73 urte.
- Sabina Garcia Lete**  
Azaroak 10, 76 urte.
- Eugenio Olertza Zarataza**  
Azaroak 11, 82 urte.

## JAIOTAKOAK

- Lidia Del Bosque Pro**  
Azaroak 3.
- Irati Olaziregi Alberdi**  
Azaroak 3.
- Mikel Rodriguez San Martin**  
Azaroak 4.
- Ixaso Alberdi Elkoroiribe**  
Azaroak 4.
- Ane Mujika Epelde**  
Azaroak 5.



# ETXEPARE-BILINTX

## LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

### Aranzabal Lagunartea Salamancara Reala ikustera

Aranzabal Lagunartea Realak Salamancan jokatu duen partidua ikustera joateko irteera antolatu du. Partidua hurrengo domekan, hilak 23, jokatu da El Helmantico futbol zelaian eta Arrasateko Bonba eta Oñatiko Olakua lagunartekin batera antolatuko dute irteera. Bi aukera daude: alde batetik, zapatuan irten eta busa, hotela eta sarrerarengatik 12.500 PTA ordaintzea (lagunartekoek 10.000 PTA); bigarren aukera, berriz, domekan bertan irteera eta 6.000 PTA ordaintzea (lagunartekoek 3.000 PTA) busa eta partidua ikusteko sarrerarengatik. Irteera antolatzeko bilera baterako deia luzatu dute Aranzabal Lagunartekoek. Bilera zapatu honetan 13:00etan Kultur Etxean izango da. Salamancarako izena emateko azken eguna domeka honetan da Deportivo tabernan. Ordainketa bertan egin beharko da izena ematerakoan.

### Presoak Euskal Herrira ekartzeko ekimena

Euskal presoan 20 senidek Euskal Herria zeharkatuko dute azaroaren 30etik abenduaren 30era arte, presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzeko. Hori dela eta, Bergarako Presoak Euskal Herrira ekimenak senide hauei bergararren sinadurak emango dizkie Bergaratik pasatzen direnean. Horregatik, manifestua sinatu nahi duten herritarrei gogorarazten zaie lehen bait lehen sinatzea eskatzen zaie. Herriz herri biltzen diren sinadurak Gasteiz eta Iruñeako legebiltzarretan aurkeztuko dituzte.



Justo Garate bere emaztea eta alaba bat alboan dituela, 1991an ateratako argazkian.

## Begoña Sarrionandia zornotzarrak jaso du aurtengo Justo Garate beka

*Garatek euskararekiko izan zuen garrantzia aztertuko du*

Begoña Sarrionandia zornotzarrak jaso du aurtengo Justo Garate beka. Bergarako Udaleko Kultur batzordeak urtero ateratzen duen beka, ingeles filologian lizentziatuta dagoen Begoña Sarrionandia eman du. Aurtengo beka filologia gaiak aztertzeke eman dute eta Sarrionandia Justo Garateren obrek euskararekiko izan duten garrantzia aztertuko du. *“Justo Garatek artikulua eta liburu asko idatzi zituen eta nire lana Garateren obrek euskararengan izan duten eragina aztertzea izango da. Batez ere toponimian izan da garrantzitsua Garateren lana eta lexikografian ere bere garrantzia izan du. Euskal toponimia eta kanpoko aztertu zuen Justo Garatek eta berak egin dako lana oso garrantzitsua da*

*euskal kulturarentzat”* adierazi digu Sarrionandia.

Ikerketarako 11 hilabete izango ditu eta lana egiteagatik 950.000 pezeta jasoko ditu. Aurtengo Justo Garate beka jasotzeko, Euskal Herri osotik bidalitako lau eskari jasoko dira. Aurtengo edizioa seigarrena da eta oraingoz Rosa Ramosek Nafarroako euskararen egoerari buruz egindako ikerketa argitaratu da. Era berean, Maria Jose Olaziregiren “Euskal gazteen irakurketa gustu eta ohiturak” ikerketarekin liburu argitaratzeko proiektua onartu du Udalak. Justo Garate bekaren bitartez filologia, historia eta geografia gaiak ikertzeke dirulaguntzak ematen ditu Bergarako udalak. Ikerketa egiteaz gain, liburu bat argitaratzeko laguntzak ere ematen dira.



## ETXE BERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

## Bolintx

O K I N D E G I A

domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26



## Zabalotegi eta Ibaiondo kaleak txukundu eta asfaltatu egingo dira

Udaleko langileek aste honetan hasi dituzte San Martin Agirre ikastetxeke atzealdean dagoen lur sailaren egokitzapen lanak. Inguru horretako lurra kendu ondoren, zoruan asfaltatua botako dute. Obrak bukatutakoan aparkatzeko 37 toki berri izango dira. Horrez gain, argiteria ere sartuko dute. Lanen aurrekontua 4 miloi eta erdi pezetakoa da.

Bestalde, Udal Euskaltegiko eta Zabalotegiko iturriaren inguruak egokitzeko lanak egitea ere onartu du Udalak. Inguru horretan lurzoru egokitzeaz gain, argiteria berria jarriko da. Lanekin urtarrilean has-teko asmoa dute eta

3.350.107 PTako aurrekontua onartuta dago. Lan hauek ere udal brigadak egingo ditu.



## Gazteak soldaduzkako zozketen kontra

Soldaduzkaren aurka eta intsumisioaren aldeko manifestazioa egin zuten eguasten goizean Aranzadi ikastolako BBB eta UBiko eta Ipintza eta Miguel Altuna institutueta ikasleek. Era berean, ikastetxe horietako ikasleek egun osoko greba egin zuten. Izan ere, eguastenean egin zen soldaduzkara joateko zozketa. 38 gazte bergarar zozketatu zituzten eta horietatik bik soldaduzka ez dute egin beharko, libre geratu baitira.



## Ihardunaldi pedagogikoak

San Martin Agirre Herri eskolako Biltzar Nagusiak antolatu dituen ihardunaldi pedagogikoen barruan, datorren eguenean, Izaskun Madariaga haur eskolako irakasleak "Agresibitatea eta autoestimazioa haur txikiengan" gaiari buruz hitz egingo du, 18:30etan Kultur Etxean.

## Kiroletako dirulaguntzak jasotzeko azken egunak

Bergarako Udalak herriko kirol elkarteei edo kirol ekintzak antolatu nahi dituztenei ematen dien dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteko epea azaroaren 30ean bukatzen da. Dirulaguntzak jaso nahi dituztenek txostenak aurkeztu beharko dituzte eta, era berean, aurten laguntzak jaso dituztenek antolatutako ihardueren txostenak aurkeztu beharko dituzte kirol zerbitzuan.

## Santa Marinaran meza nagusia domekan

Santa Marina eta San Pedro parroketako abesbatzekin meza nagusia izango da domekan 11:30etan Santa Marinaran. Ondoren, bazkaria Ollagorria elkartean.

## Gurasoei zuzendutako hitzaldiak

Mariaren Lagundiko haurren gurasoei zuzendutako bi hitzaldi izango dira datorren astean ikastetxean: astelehenean 19:00etan, Mariasun Calvok "Gure kristau fedearen eguneratze eta sakontze kurtsoa" gaiari buruz jardundungo du; eguastenean, ordu berean, "Umeen hezkuntzari buruzko burutapenak" gaia aztertuko du Marisa Zubillaga psikologoak.

## Bedelkarreko harakinen zozketa

Bedelkarreko harakinek astero zozketatzen dituzten 5 kilo txuletak 4.103 zenbakiari egokitu zaizkio oraingoan.



# Berrigara Gida 98

## **Partikularrei:**

Aurten, Gabonetan kaleratuko dugun Berrigara Gida 98 liburutxoak, ohiko telefonoez gain, herriko partikularren telefonoak ere jasoko ditu. Beraz, intereseko telefonoak, komertzialenak eta partikularrenak jasoko ditugu, hau da, **Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak**. Partikularren telefonoak Telefonick 1995eko azaroan argitaratutako listinetik hartuko ditugu; harrezkero telefono berria jarri baduzu, esan iezaguzu guk gidan ipin dezagun.

**Azkar ibili, azken egunak baitira.**

**BERRIGARA**

## Ekologia

## Urkuluko fauna

- **Urkulu inguruak aberastasun handia omen dauka hegaztiei dagokionez. Nola da hori?**

- Gipuzkoan ez dago berez-ur-hegaztientzat leku egokirik (kostaldeko padura txikiak soilik) eta Urkuluko urtegian uraren inguruan bizi diren hegaztiei bizitzeko baldintza aproposak aurkitu dituzte: uretako landaretza, babesa, leku lasaia, elikagaia... Gaur egun Urkulu ur-hegaztientzat Gipuzkoan dagoen gune garrantzitsuena da.

- **Zeintzuk dira bertan aurkitzen diren espezie arruntenak?**

- Ur-hegaztiei dagokionez, neguan koartzak, basahateak, zertzetak, uroiloak, ahate txistulariak, murgilari arrunta, murgilari mottoduna, ahate mokozabala, ubarroia, murgil handia eta txilinporta txikia aipatu behar dira; hauek denbora luzez egoten dira Urkulun; dena den, egun batzutarako etortzen diren kurriloak, antzarrak, lertxunak, atalarrak, hegaberak, abozetak, ipar-

hateak eta bestelako asko ikus daitezke.

- **Badago kontserbazio arazo berezirik Urkulun?**

- Ez. Ehiza babeslekua da eta gainera pasiatzeko jendeak erabiltzen duen pista uretatik nahiko urruti gelditzen da. Hala ere, hegaztiei daukaten arazo nagusia uraren erretetik ibiltzen diren pertsonak, txakurrak, motorrak eta horrelakoak dira;



**IÑAKI IRIZAR**  
(Biologoa)

asko izutzen dira eta sarritan hegazti-talde handiak hegan ikusi daitezke. Laister, Urkulu Aizkorriko Parke Naturalaren barruan geldituko da eta hortik etorri daiteke arazo txiki hauen konponbidea.

- **Zein da Urkulura hegaztiak ikustera joateko garai egokiena?**

**“Urkulu, gaur egun, ur-hegaztientzat Gipuzkoan dagoen gune garrantzitsuena da”**



Urkulun argazkian moduko kopetazuriak topatu daitezke.

- Bi garai desberdin aipatu behar dira: negualdekoa eta udaberri-udarakoa. Negualdeko garaia urriaren bukaeratik otsailera bitartekoa da; paseko hegaztiak eta urtegiara negua pasatzera etorri diren hegaztiak ikusteko garaia da: antzarrak, basahateak, murgilariak, ubarroak... Hegazti kopuru handienak (ale eta espezie asko) garai honetan ikusiko ditugu.

Udaberrietik aurrera, Urkulun kumatuko duten hegaztiak ikusiko ditugu. Gero eta espezie gehiago ari da bertan kumatzen gelditzen: basahateak, kopetazuriak, murgil handia eta uroiloa, esate baterako. Garai honetan hegazti asko ikus daitezke baita: miruak, antzandobiak, txori ezberdin asko...

- **Aholkuren bat hegaztiak ikusten hasi berri direnentzat?**

- Hegaztiak ezagutzen hasi nahi duenak hiru gauza behar ditu: pazientzia apur bat, prisma-tikoak eta gida bat. Prisma-tiko egokienak 8x30 edo 8x40 neurrikoak dira; Identifikazio-gidei dagokionez, marrazkidunak argazkidunak baino hobek dira. Aretxabaletako Murruxiko taldeak ornitologian hasteko ikastaroak antolatzen hasiko da eta oso aukera ona izango da honetarako zaletasuna dutenentzat.

**KONDE**



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

**ONENA**

**TINTATEGIA**

Barrenkale, 29 BERGARA

# Ibilbide megalitiarra

## Kapirixok hiru urteko lana amaitu du



Kapirixok Trekutzetik Karakatera bitarteko tumulo eta trikuharriak garbitu eta seinalizatu ditu. Agarrebunur leunezko aizkora bat agertu zen.

**Kapirixoko Deba Garaiko ondarea babesteko sortutako elkarteak 1994an ekin zion Elosu inguruko eremu megalitiarra garbitzeko lanari. Antzuolatik, Trekutzetik, Karakatera bitartean 18 elementu megalitiar daude eta inguru horretan ibiltzen direnek ibilbide megalitikoaren egin ahal izango dute aurrerantzean, panelen bitartez duela 4.500 urte inguruko aztarnei buruzko informazioa azaltzen baita.**

**I**bilbide megalitiarra, esan bezala, Karakatik Trekutzera bitartean dago eta Xabier Larrañaga Kapirixoko ordezkariaren arabera 6 bat ordu dira beharrezkoak ibilbide osoa nahiko martxa patxadatsuan oinez egiteko. Ibilbidearen hiru sarreretan (Trekutzen, Santutxun eta Karakaten) pa-

nel informatibo haundiak jarri dira eta, horrez gain, ibilbidean zehar diren elementu megalitiko bakoitza Kapirixoren panel txiki batekin eta Aranzadi Zientzia Elkartearen plaka batekin seinalizatuta dago.

Eremu megalitiar honetako lehen trikuharriak Jose Miguel Barandiaranek

aurkitu zituen 1920an. 1921ean, Karlos Orueta eta Eugenio Arri-llagaren laguntzaz, beste elementu batzuk topatu zituen eta urte horretan bertan Telesforo Aranzadik, Enrike Egurenek eta Barandiaranek berak eremua industu zuten. Pili Azkarate Kapirixoko ki-dearen hitzetan, "orduan

**Kapirixok txukundutako eremu megalitiar honetako lehen trikuharriak Jose Miguel Barandiaranek 1920an aurkitu zituen**

zituzten medioak kontutan izanik, izugarrizko lana egin zuten. Beraiek eta neurri baundi batean Pol-Pol mendizale taldeak ere orain 25 bat urte egindako lanari esker nabiko egoera onean mantendu dira elementu megalitiarrak”.

**Panelak**

Denera 18 elementu megalitiar daude ibilbidean zehar. Hilobi kolektibo hauek Kristo aurretiko 2.500-1.500 urtekoak dira eta Xabier Larrañaga Kapirixoko kidearen ustetan balore haundikoak dira gainera; “kontutan izan orain dela 5.000 urteko aztarnak direla baina ezin da esan Euskal Herriko tumulo edo trikubarri onenak dauzka-gunik. Gureak oso inportanteak dira baina badaude hobeagoak; Errioxan geratzen direnak adibidez desberdinak dira, osorik daude eta egi-




Garai batean inguru honek bi bailarak lotzen zituen, biziha handiko mendia izan da historian zehar.

tura oso ondo apreziatzen da. Zer da hobea eta zer txarragoa? Azken batean hauek dira guginaino iritsi direnak eta

mantendu direnak eta hauei esker jakin abal izango dugu nolabait orduko bizimodua nolakoa zen”.

**Proiektu aitzindaria**

Ignacio Barandiaran Euskal Herriko Unibertsitateko aurrehistoria kate-



Argazkian, Frantses basoko txabola.

**G**arai batean inportantzia haundiko mendia omen zen Elosu inguru hori eta horren lekuko frantsesen inbasioan Napoleonen armadak bertan hartu zuen kanpamendu, izan ere oso leku estrategikoa baitzen. Toponimian ere frantsesen arrastoa topatu dezakegu frantses-basoa deituriko parajeen. Artzantzarako ere oso leku aproposa zen eta oraindik ere txabola eta borda

ugariren aztarnak aurki daitezke bertan. Hainbat txabola trikubarrien harriak aprobetxatuta eraiki zirela uste da gaur egun.

Datu asko daude pentsatzeko mendi hau oso inportantea zela alboan dituen bi bailarentzat eta banaketa baino gehiago lotura lana egiten zuela. Askok ziren bailara batetik bestera igarotzeko bide hori erabiltzen zutenak eta hori

ikusita bandido ugariren gordelekua ere bazen mendia. Adibide gisa XVIII edo XIX. mendetik ahoz transmititu den Txandrua bandidoaren istorioa heldu da guregana. Txandrua eta bere taldea Maurketa inguruan ibiltzen omen ziren eta batzuetan Soraluze aldera eta besteetan Azkoitia aldera jeisten ziren beren lanak gauzatzera. Azkoitiraino joan ziren egun batean Monja Zaharren

konbentoa lapurtzearekin akordatu ziren eta bertara heldu ondoren monja guztiak lotu eta konbentuko gela batean giltzapetu zituzten zaratarik ez ateratzeko. Bazegoen gaixorik zegoen monja zahar bat eta hura ohean pakean lagatzea erabaki zuten, buruhausterik emango ez zuela pentsatuz. Baina Txandruak eta bere lagunek zorte txarra izan zuten: ohetik altxa eta kanpaia jotera iritsi zen monja gaixoa. Kanpaia jotzen ondoren, handik gutxira Txandrua eta bere lagun guztiak konbento barruan harrapatu zituzten eta esku hutsik atera ziren Monja Zaharren konbentutik. Kontua da biziha handiko mendia izan dela gure historian zehar. Hor dira garai batean egiten ziren erromeria eta jaiak (maiatzaren lehen domekakoa berreskuratu dute Atsedean txaboleta elkarteak eta Kapirixok) ere bai. Ea ibilbide megalitiarrak Txandrua ez baina bestelako bisitariak erakartzen dituen...

dradunak Kapirixok azken hiru urteetan egindako lana goraiatu zuen, eta adierazi zuen horrela seinalizatu den lehen eremu megalitiarra hauxe izan dela. Izugarritzko baliio arkeologikoa duen Britainako Karnak-eko eremua oraintxe bertan hasi dira seinalizatzen eta, beraz, Elosu inguruan egindako lana aitzindaria da ikuspegi horretatik. Pili Azkaratek adierazi digunez, *“beste toki askotan garrantzia berdineko elementuak dauzkate baina bemengo eremuak duen abantaila zera da: jendea neurri haundi batean arduratu dela egoera onean zaintzen eta orain ibilbide osoa seinalizatu dela. Gainera oso eremu ona da jendeak ikusteko; paraje nabiko laua da eta jende asko ibiltzen da bertatik pasiatzen. Horrelako elementuak dituzten beste tokietan ez dira hain baldintza onak*



Azken hiru urteetan 100 bat lagun aritu dira domekero-domekero garbiketa lanetan.

*ematen eta hori baloratu beharra dago baita”.*

Kapirixo sortu zenean elkarteko kideek eremu megalitiarraren garbiketa-

ri ekitea argi ikusi zuten. Xabier Larrañagaren esanetan, *“aspaldi geneukan horrelako lan bat egiteko asmoa eta, horrez gain,*

*jendea Kapirixoren inguruan biltzeko oso proiektu aproposa zela ikusi genuen. Hori bai, ez genuen uste horrenbesteko lana emango zigunik. Baina gure lana ezagutzera emateko eta obiar-tzun piskat lortzeko erela lan interesgarria izan da eta basierako belburuak bete ditugula pentsatzen dugu. Gaur egun jendeak Kapirixo ezagutzen badu, neurri haundi batean proiektu honengatik izango da”.*

Egindako lana ez da makala, 100 bat lagun aritu baitira hain zuzen domekero-domekero garbiketa lanetan. Pili Azkaratek azpimarratzen duenez, *“gebienak Kapirixoko kideak baldin baginen ere, izan dira euren laguntza eskeintzera etorri diren beste asko eta guztion kolaborazioa eskertu beharrean gaude. Horrelako lanetan zailena jendea engantxatuta jarraitzea*



Ibilbide osoan zehar argazkian agertzen den moduko panelak jarri dira.

*izaten da eta, egia esan, azkenerako lan astuna gertatu zaigu, oso lan luzea izan baita. Baina momentu politak ere asko izan dira eta egindako lana hor dago”.*

**Mantenimendu lana**

Laguntzei dagokienez, dirulaguntzei baino izan duten baliabideen laguntzari garrantzi gehiago ematen diote Kapirixokoek: Bergarako Udalak Land-Roverra eta erramintak laga zizkien adibidez eta proiektuan kolaboratu izan dutenek ere lanerako tresna egokiak eraman dituzte. Bestalde, Gipuzkoako Diputazioak milioi bat pezeta laguntza eman du proiekturako, Bergarako Udalak 500 mila pezeta, Soralezekoak 225 mila, Antzuolakoak 150 mila, Jaurlaritzak beste 100 mila eta Kapirixok, berriz, 150 mila pezeta jarri behar izan du presupuestoa osatze-

**Ibilbidea**

Ibilbide megalitiarra egiteko asmoa dutenek bide ondoan aurkitu ahal izango dituzte trikuharriak eta tumuloak non dauden seinalizatzen duten panelak. Industu aurretik denak dira tumuloak (harri koxkor eta tontorrek) baina ondoren ikusten da aldea. Trikuharriak barnean harlauzak dituztenak dira eta tumuloen kasuan ez da horrelakorik aurkitzen. Hona hemen elementu megalitikoak dauden tokiak, Trekutzetik hasita:

- Gaztelugain** elkartearen ondoan.
- Agarreburun** (Elosumendiko antenatik gertu).
- Maurketan** (Elosumendiko bidegurutzea igaro ondoren, ezkerretara).
- Keixeta Egixa hegoaldekoan** (Pol-Poleko bidegurutzea baino lehen, 50 bat metro eskumatera basora sartuta).
- Keixeta Egixa iparraldekoan** (kamiñora jeisteke beste 150 metro aurrerago).
- Keixeta, Irukurutzeta eta Pol-Pol iturrirako bidegurutzean** (oraindik garbitzeke).
- Irukurutzetan.**
- Kurutzebakarren** (Osintxun).
- Nahasiko gunean** (Soraluzen).
- Pagobedeinkatuan.**
- Azkoin** (Pagobedeinkatutik 150 bat metrora).
- Atxolintxikin** (Atxolineko haitzera goazela, eskumatera).
- Atxolinen** (tontorrean).

ko. Esan beharrik ez dago Kapirixokoek sartutako lan-ordu guztiak ordaintzekotan aurrekontuak dextente gora egingo zuela.

Ibilbide megalitiarra herritar guztiek ezagutze-ko prest dago dagoeneko. Orain Kapirixok egingo dako lana baldintzarik

onenetan mantentzen jarraitzea baino ez da falta eta horretarako Kapirixok herritarren kolaborazioa eskatu nahi du, hurrengo belaunaldiek ere urteetan zehar hor egon diren elementuak ezagutu eta gizakiaren historia hobeto ulertzeko baliabideak eskura izan ditzaten.

**“Beste toki askotan garrantzia berdineko elementuak dauzkaten arren, ez daude hau bezain ondo seinalizatuta” PILI AZKARATE**

**OILAGORRA**  
**TABERNA**  
 Barrenkale, 21 BERGARA

**EDEL**  
**TAPIZDENDA**  
*Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*  
**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoia, etab.**  
 Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.  
**Bidekurutzeta, 14 BERGARA**



**LIZAR**  
**ALTZARIAK**  
 Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

**PANA DE ROKUA**  
**TATETXEAL**  
 Kontxi Idigoras  
*Asteburuetan bertako babak eta sahieskia*  
 SALBADOR, 10 ELGETA TLF. 76 82 73

**LAZKANO**  
**Oinetakoak**  
 Barrenkale, 15  
 ☎ 76 25 03

# Kintadetan parte hartzen duzu? Zure belaunaldikoekin biltzeko ohiturarik baduzu?



**Bonifacio Gonzalez**

Ez. Ni Rusian egon nintzen, "Division Azul" delakoan eta orduko lagunekin biltzea gustatuko litzaidake, bai. Baina oso sakabanatuta gaude...



**Jose Galan**

Ni behintzat 1959koa naiz eta ez dugu orainarte kintadarik egin. Norbaitek kintada antolatzeke ardura hartuko balu ondo egongo litzateke guztiak biltzea.



**Covadonga Diez**

Egiten dira bai, baina ni kanpokoan naizenez, ez naiz joan. Oso ideia polita iruditzen zait. Dena den ez dut uste nire kintada egin dutenik. Beharbada animatuko nintzateke.




**Maribi Arce**

Joan zen urtean nire kintadakoek egin omen zuten baina berandu enteratu nintzen...Gustatuko litzaidake egotea. Naparra naiz eta han ere egiten ditugu.



**Maribel Zeziaga**

Bai, kintadetarako eta horrelako gauzetarako beti gaude prest. Azken lau urteetan egin dugu eta ondo dator lagunekin harreman gehiago izateko.



**Vicente Migura**

Ez, aspaldi ez naiz egon. Lehen egiten genituen baina lagata daukagu. Dena dela, nik uste dut gauza horiek beharrezkoak direla, ondo daude.

## JAKiON

Deba Garaiko Baserriko Barazki eta Fruta Kontserbak

JAKION S.L. • San Miguel plaza, 4 etxabea.  
20530 Leintz Gatzaga • Gipuzkoa  
Tf.:(943) 71 46 86 • Faxe: (943) 71 46 21

**BERGARAN**  
*honako denda*  
*hauetan salgai*

- Aldi Irala Irizar, 3
- Laskurain Artekale, 4
- Arantxa Azoka

**ANTZUOLAN**  
*honako denda*  
*hauetan salgai*

- Juan Jose Agirre Harategia Kalebarren, 1
- Mujika Harategia Kalebarren, 1

**ARREGUI, E.M.**

**ARROZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
  - PVCzko LEIHOAK

**Urteaga, 20 ☎ 76 11 73**  
**Erakusketa: Bidekurutzeta, 38**





## Opera eta subasta

**H**arridura sortarazi du astean zehar zabaldu den berri batek: Mecano taldeko kide izandako batek, Jose Mari Canok, bere koadro bildumako hainbat subastara atera omen ditu joan deneko bost urteetan lantzen diharduen opera-proiektu bat finantzatzeko. Eta, komunikabideek Canoren ausardia goraiatu dute.

Esaten dutenez, hortatik lortutako 40 milioiak proiektuko orkestak eta bertan izandako beste inbertsio batzuek sortutako gastuak ordaintzeko erabiliko dira. Agian bai, agian ez.

Egia balitz, Canoren jokabidea, berak esperientziarik ez duen arlo batean bere patrimonioa arriskatzea, guztiz txalotzekoa izango litzateke. Aintzinako abenturero zeharren modura, El Dorado-ren bila dena mando batean eta basta batean inbertitzea ez da txantxetako. Eta egia ez balitz ere, bere inizatiba txalotzekoa iruditzen zait, oraindik eszenarioetan eman ez den proiektu bati buruz hitz eginarazteko prestatutako marketing-operazio zaindu baten aurrean izango baikinateke.

Aukera baten edo bestearen alde apostu egin behar izanez gero, nik bigarrenaren alde egingo nuke, aspalditik baitabil he-dabideetan operaren aldeko halako haize bat eta Canoren proiektuak genero hori berraurkitu nahi du. Ez diot konpositoreari inongo meriturik kentzen, baina lekuz kanpokoa iruditzen zait komunikabideetara negarrez joatea, izan ere, hamaikatxo autore daude berak baino motibo gehiago dutenak eta aitorten bat lortu nahirik egunero-egunero borrokan jarraitu beharra dutenak.

Mecano-ohiak taldeak izan zuen oihartzuna errentabilizatu nahi du mecenaz irudia emateko eta, bide batez, jendartean bolo-bolo dabilen une baterako prestatu nahi du publikoa: hirukoaren itzulerarako. Denak balio du operaren alde egiteko. Hala beste zerbaiten alde?

**Juan Antonio MIGURA**



## Historiatik histeriara

**A**zken egunotan eskoletan zer ikasi izan dou eztabaida. Batetik Esperanza Agirre ministroaren "lokalismoa" laga ta Espainiaren garrantzia irakatsi, ta bestetik, Serra defentsa ministroak esandakua: "izpiritu militarra eskoletan irakatsi beharreko gaia da". Behinguagaitik Serra eta militarrek patxada ederrian lagako dittugu, esandakuak eztaukalako ez hanka eta ez buru, ta Agirrerren "historiaz" berba eingou.

Esperanzaren asmua estatu osoan "Espainiako historia bera" irakastia da. Ezta asmo makala! Horren arabera, Euskal Herriko ume batentzat inportantiagua da Guadianaren berri izatia, Deba ibaiaren berri izatia baiño. Eztot ulertzen, baina oiñ beste duda bat. Aurreko batian diarixo batian zillarezko txanpon baten propaganda ikusi neban. Bertan Domingo Martinez de Iralaren txanpona ta azpizan biografiatua: "...con su afán de fomentar la unión y el mestizaje... fue el creador de la estirpe paraguaya. Una convivencia... que él mismo puso en práctica: tuvo nueve hijos con siete mujeres indias".

Eta aurrerago Asuncion de Paraguayri buruz: "construyó el pueblo, fundó iglesias, pacificó la tierra...". Ondo irakurri duzue; seme-alaba pila bat izatiaz aparte (emakumieie galdetuta?), lurralde haura baketsu bihurtu zeban. Zeiñek idatzi dau testu hori? Hango batek ez!

Nongo historia ikasten dan garrantzitsua da, baiña zeñek, zetako, ta zeinentzat idazten dan garrantzitsuago. Segitu bihar dou konkistatzaileen "bakezaletasuna" behin da berriz txalotzen edo, nahiz eta gure herrikua izan, beste balore batzuk bihar ditugu? Garbi dau, bertakua, ingurukua, harutxatxuaukua eta ahal dana, baiña ez beti betikoen betiko antioju edo lentillekin.

**Asis IRIONDO**

I  
G  
E  
L  
T  
S  
E  
R  
I  
T  
Z  
A

**BIAK, S.L.**

Fleming doktorea, 5  
BERGARA  
Mobilak:  
907 44 50 38  
907 46 57 38

I  
G  
E  
L  
T  
S  
E  
R  
I  
T  
Z  
A

Datorren ostiraletik aurrera,  
azaroak 21,  
ostiral, larunbat eta igandeetan  
**oilasko erreak  
eramateko!**  
Eska itzazu 76 71 19 ff.ra deituz!

Eta gainera, bokata eta pintxo  
karta zabalena daukagu.



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerrean.

■ **Ezkontza**

**Beatriz Davila eta Jesus Mari Roige**



bergararrak joan zen **urriaren 25ean** ezkondu ziren Udaletxean. Bertan bildu ziren Jesus Mari eta Beatrizen senide eta lagunak eta, hori gutxi balitz, **Mikel Eguren** zinegotziak, bikotearen lagunak, ezkondu zituen. Lagunek bidalitako argazkian zeremoniako irudi bat ikus dezakezue. Elkarri baietza eman ondoren, ezkondu berriak gonbidatuekin bildu ziren Azpeitiko jatetxe ezagun batean ospakizuna zelebratzeko. Ondorengo juerga Bergaran egin zuten. Zorionak ezkonberrientzat!!

■ **Mendizale bikaina**

**Maria Jesus Perez** bergarar mendizaleak sasoi ezinhobean dagoela erakutsi du, **65 urterekin Monte Perdido**ko gailurra zapaltzean. Monte Perdido Pirineotako bigarren mendirik altuena dugu, 3.345 metroko altuerarekin, eta Maria Jesusen Esteban Lazkano bere semearekin lortu



zuen bertaraino igotzea. Tallon mendira joatea ere lortu zuten biek eta etorkizunean Aneto, Pirineotako gailurrik altuenera joateko asmoa daukate. Hori sasoi, hori!!



KIÑU

■ **50 urteko bergararrak**

Ohizkoa den bezala, aurten **50 urte** egiten dituzten bergararrek euren anaiarteko eguna ospatu zuten aurreko zapatuan. 1947an jaiotakoak biltzen ziren lehen aldia zen eta guztiek egun

ahaztezin bat igaro zuten. Guztira **117 lagun** elkartu ziren eta albumean gordetzeko argazkia atera ondoren Lasa jatetxean afaldu zuten. Afalostea **Ibaiak orkestak** alaitu zuen eta datorren urtean berriz biltzeko geratu ziren. Bien bitartean ondo segi eta eutsi goiari!!

**AGIRREBEÑA**  
oinetakoak  
arropa denda  
lenzeria  
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

**YAZKI**  
UME GAZTE  
Neska eta mutil  
Irizar, 3                      Ibarzari, 8  
☎ 76 16 14                      ☎ 76 54 73

**MUJIKA**  
Jantzidenda  
Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

■ **Frantziar ikasleak Bergaran**



Miguel Altuna Institutuak Reimseko Libergiere

Lizeoarekin urtero egiten duen ikasketa trukearen barruan, joan zen eguastenetik bihar arte frantziar ikasle talde bat Bergaran da. Guztira, 13 ikasle eta 2 irakasle etorri dira Frantziatik eta egunotan hainbat irteera egin dituzte

hemengo alderdi ekonomikoak, sozialak edota politikoak ezagutzeko. Gasteizen eta Donostian izan dira eta Bilbon zabaldu berria den **Guggenheim** museoa ere bisitatu dute. Joan zen ostiralean Bergara ezagutzeko ibilbide turistikoa egin zuten eta Udaletxe ondoan harrapatu genituen. Miguel Altunan Administrazioiko goi mailako zikloan ari diren ikasleak martxo aldera joango dira Frantziara. Gaur ostirala despedida afaria eskeiniko zaie frantziarrei **Pertxa elkartean**. Hurrengora arte!!

■ **Realzale gaztetxoak**

**Realak** domekan **Espanyol** taldearen aurka jokaturako partiduaren atarian **Andoni Badiola, Lander Ugarte eta Iosu Irizar** bergarar mutikoak Anoetako berdegunean izan genituen. Realeko jokalariekin batera argazkia atera ondoren, hirurak bere idoloak animatzen izan ziren partidu osoan zehar eta Realak garaipen garrantzitsua lortu zuen, 2 eta 0 irabazi baitzuen. Oraingoz behintzat ezin izan zuten partidua

jokatu baina nork daki, beharbada laster Realaren hamaikakoan izango ditugu Andoni, Lander eta Iosu. Goiko argazkian **Aranzabalen parean**, aurreneko ilaran, ikus ditzakezue hirurak. Futbolari bikainen itxura badaukate... Aupa Real!!

**Zertan dihardute ba?**



**Iñigo Garitano** 31 urteko bergararra Arrasateko Iturbide Zaharren Egoitzako Zuzendaria izendatu dute, jubilatutako Luis Mari Iriondo aurreko zuzendaria ordezkatzuz. Aukeraketa probak gainditu ondoren, Iñigok eskuratu du lanpostua eta Iturbide Zaharren Egoitzan zuzendari lanak betetzeaz gain, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saileko burua izango da abenduaren erdialdetik aurrera. Garitanok Zuzenbide ikasketak burutu ditu eta azken bost urteotan Antzuolako Udaleko idazkaria izan da. Iñigok ilusioz beterik ekingo dio etapa berri honi.



ARTISAUTZAKO IZOKIA  
**GOXO-TOKI**  
 D. Irala, 3 - Tlf. 761235  
 Matxialegi, 34 - Tlf. 762337  
 BERGARA

**ZUBIETA**  
 elektragintza  
 MOTORREN BOBINAKETA  
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK  
 Kruz Gallastegi, 2 behea  
 ☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**  
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
 Leihoak, atek, manparak...  
 Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik  
 Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
 Tfnoa: 76 55 02 Faxes: 77 11 30

# Ramon Bastida

**Ramon Bastida azpeitiarrak 20 urte daramatza sukaldeekin lanean. Orain arte Zarautzen eta Azpeitian aritu da eta datorren azaroaren 22an lehen urtebetetzea egingo du Ibargaraiko dendak. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu.**

- Zelako sukaldea duzue etxean?
- Bitrozeramikazkoa.
- Etxean nork agintzen du sukaldean?
- Inork ez..., biok egiten dugu.
- Sukaldari ona zara?
- Bai, hori pentsatzen dut behintzat...
- Zure espezialitatea?
- Arkumea.
- Platerrik gustokoena?
- Jaten ez daukat inolako problemarik.
- Sukaldeko lanik gorrotagarriena?
- Garbitzea.
- Etxeko lanetan laguntzen duzu?
- Gutxi. Denborarik ez...
- Etxeko txokorik gustokoena?
- Sala eta sukaldea.
- Nor gonbidatuko zenuke afaltzera?
- Lagun min bat.



*“Kirola egitea baino gehiago ikustea gustatzen zait; mendia eta ziklismoa ditut gustuko. Sukaldeko lanik gorrotagarriena garbitzea da. Athletic zalea naiz”*

- Eta nora?
- Soziedade batera.
- Kirola ikusteko ala egiteko?
- Ikusteko.
- Kirol bat?
- Mendia eta ziklismoa.
- Inguruko mendi bat?
- Izarraitz.
- Euskadi talderako, Gorospe ala Perurena?
- Gorospe, gazteei sarrera eman behar zaie.
- Internetera konektatuta zaude?
- Orain konektatzekotan gaude...
- Eta zertarako erabiliko duzue?
- Lanerako gehienbat.
- Telebistako programarik onena?
- “Teleberri”.
- Eta txarrena?
- “Quien sabe donde”.
- Zenbat ordu egiten duzu lo?
- Kalkulatu egin behar... Zazpi bat.
- Kinielarik egiten duzu?
- Ez.
- Zein futbol taldeko jarraitzailea zara?
- Athletic-ekoa.
- Nork irabaziko du lau eta erdiko txapelketa?
- Julian Retegik.
- Astebukaerako plan on bat?
- Andreakin bainuetxe batera joatea.
- Nolatan azpeitiar bat azkoitiar batekin ezkonduta?
- Zergatik ez ba? Ama ere Azkoitiko daukat.

## ARDATZA

### Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak



# Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

## POL-POL

### Taberna

☎ 76 07 78



**ETXEBIZITZA**

**Etxea** salgai Osintxun.  
☎ 76 36 61 (arratsaldez).

**Lokala** salgai edo alokairuan Masterrekan. 150 m2.  
☎ 76 11 89.

**Garaje** bikoitza alokairuan Torrekuan. ☎ 76 30 32.

**Pisua** alokairuan Bidekurtzeta 14an. ☎ 76 36 99.

**Pisu** eguzkitsua salgai Maixiategin. ☎ 76 40 99.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 63 10 (gauetz).

**Garajea** salgai Martokon. ☎ 76 35 50.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauetz).

**Lokal komertzialak** alokairuan Zurraderon eta San Pedron. ☎ 76 57 69.

**Pisua** salgai herri erdian, Frontoian. 160 m2.  
☎ 76 24 42.

**Lokala** alokairuan Telesforo Aranzadin. ☎ 76 30 08.

**Etxea** salgai Zubiaurren. ☎ 76 64 88 (gauetz).

**Pisua** salgai Antzuolan.  
☎ 76 64 65 (12:00-13:30).

**Pisua** salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

**Garaje** bikoitza alokairuan Zurraderon. ☎ 76 57 69.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 45 60/51 45.

**DENETARIK**

**Andregai** jantzia saltzen dut. ☎ 76 26 70.

**Hozkailu** berria salgai. Egoera onean. ☎ 76 70 86.

**Urrezko** pultsera (izena eta fetxarekin) aurkitu dut Simon Arrietan. ☎ 76 05 62.

**Lama** Martes Lobsang Ramparen liburu bilduma salgai. Azkarruntz 12, 4.Esk.

**Yorkshire** txakurkumea salgai. ☎ 76 18 96.

**Txamarra urdin** bat galdu nuen domekan Asepoyo inguruan. ☎ 77 91 06.

**Nikon** FM2 kamara berria salgai. Rowi boltsa haundiarekin. ☎ 76 50 86.

**Estufa japoniarra** salgai. Haundia eta prezio onean. ☎ 76 47 82 (Ana).

**Setter** txakurrak salgai. ☎ 78 71 67.

**Idazmakina** elektronikoa salgai. ☎ 76 39 14.

**Eskalada** egiteko katuoinak saltzen ditut.  
☎ 76 50 22 (asteburuan) edo (948) 27 11 82 (Noelia).

**"Moncayo"** karabana salgai. ☎ 76 38 26.

**LANA**

**OHO** eta ingeleseko klaseak ematen ditut.  
☎ 76 17 18 (Jesus).

**Gaztetxoei** marrazketa librean laguntzeko prest nago. ☎ 76 34 83.

**Euskara** klaseak hartuko nituzke. ☎ 70 71 47 (Isabel).

**Andre** batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketak egiten ditu. ☎ 76 00 90.

**Itzulpenak** (ingelese, gaztelera, euskara) egiteko pertsona behar da. ☎ 79 25 75.

**Haurrak** edo zaharrak zaintzen ditut. ☎ 79 72 92.

**Etxeko** garbiketak egingo nituzke. ☎ 76 13 46 (Dorleta).

**Errepartoak** egiten ditut furgonetan. ☎ 20 39 63.

**Mate**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

**Tabernari** euskaldunak behar dira. ☎ 79 11 25.

**Pintura** eta marrazki klaseak (Arte Ederretan lizentziatua). ☎ 76 03 83.

**Lizentziatu** batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. ☎ 76 70 40.

**Neska** batek astebukeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 56 66.

**Majisteritza** ikasle batek OHOk klaseak ematen ditu. ☎ 76 47 30.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 42 63.

**Mate**, fisika eta informatika klaseak. ☎ 76 46 03.

**OHO** eta BBB Klaseak ematen dira. ☎ 76 33 26.

**Bergara U Pair**

IRLANDA, ESKOZIA,  
INGALATERRA, FRANTZIA.  
AU PAIR, TABERNARI, DENDARI... ETA  
BESTE MILA LANPOSTU.

Telefonoa eta faxa: 76 26 06

Azaroaren 3tik aurrera, astelehena:

EGUNEKO MENUA + OGIA, POSTREA ETA ARDOA

**950 PTA.**

**PISZINETAKO**


**TABERNA**

BERGARA TF. 76 53 55

**DENA  
100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**



Simon Arrieta, 3



**GAZTELU  
BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

# BONOFOTOA



## Kontxi Landa

**Kontxi Landak** jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen inskripzioa non dagoen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **La Parra taberna** (San Antonio) zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Kontxi Landari** eman dizkiogu. Zorionak!!

***Zein da etxaurreko harlanduen artean keramika berdexkaz egindako mosaiko txikiak dituen XVI mendeko etxe honen izena?***

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 PTA

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara

## Lehen maila

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA ETXAGI	14	7	22	14
2. PAGOMENDI	13	8	44	23
3. BAR CANALEJAS	13	7	28	27
4. MONGATXURRAK	13	6	21	10
5. AZPEITXI JATETXEA	11	8	28	27
6. ERROTAGAIN	10	5	16	11
7. ETXAGI	9	8	24	22
8. AGINASPI	9	8	25	37
9. JAUJA OH ZEREZOS	7*	7	25	35
10. BILDURBAREK OPEL/LAM	6	7	17	25
11. ARLOTEAK/OILAGORRA	5	6	7	13
12. ORTZI	4	7	9	22

## A multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. AGIRREBEÑA JATETXEA	21	8	44	15
2. MANTOU	16*	8	57	8
3. SHAKTALE	16	8	47	9
4. EZINLEIKE	15	7	58	25
5. MOSKIS	13	8	32	27
6. MRW	13	7	28	20
7. ALDOKA MALDOKA	11	8	19	26
8. GANBARA ARI ARI	10*	8	20	21
9. INDARGORRI	8	8	20	28
10. POLIDEPORTIVO TABERNA	3	8	18	59
11. IGANDEKOAK	0*	8	21	44
12. KAIXO	0	8	10	92

## B multzoa


TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK	18	7	43	17
2. SLO	18	7	34	18
3. BAYER	15	7	28	19
4. AMOZKIBAR	15	7	23	20
5. AUTOBEREZI	13	8	37	41
6. JAKINA PT	9	7	28	23
7. UVE BIKOITZA	9	7	22	24
8. USOA	6	7	21	37
9. TXIPIRON	4	7	10	27
10. ERDIBITERRAK	4	6	17	23
11. AMILOTX	-2*	6	8	22

## C multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. LA JUVE	19	8	27	11
2. GUADALEST	18	8	30	19
3. FAC	18	7	43	13
4. UFALA	12	7	20	21
5. MATXAKATEGI	12	7	18	23
6. BAR GANBARA	10	7	29	20
7. ERI SIRIMIRI	10	7	19	19
8. ETENGABE	7	7	12	19
9. LA PEÑA DML	3*	7	16	26
10. KOMANDO PIPERRAK	3	7	15	30
11. PATATUS	0*	8	19	47

\* KARNETAK EZ ENTREGATZARRREN PUNTUAK KENDU ZAIZKIO.

# Jokoz kanpo



## Iban Iturrikastillo

### AMOZKIBAR

**ZER MODUZ HASI DUZUE TXAPELKETA?**  
Lehenengo partiduan egurra eman ziguten; baina ondorengo guztiak irabazi ditugu eta pozik gaude.

**ORAIN ARTE JOKATUTAKO PARTIDURIK GOGORRENA?**  
Bayerren aurkako partidua oso gogorra izan zen. 6 eta 3 irabazi genuen, baina galtzen joan ginen. Gainera, nire anaiak jokatzeko du talde horretan eta partidu berezia izan zen.

**ZER POSTUTAN ESPERO DUZUE BUKATZEA?**  
Ea lehen mailara igotzeko liga jokatzeko dugun.

**ZURE TALDEKO JOKALARIRIK ONENA?**  
Onena ez dakit, baina gol gehien sartzen dituen Rafa da.

**ETA TXAPELKETAKOAK?**  
Pedro Zafra eta Juan Mateos. Ez dute Lagunak taldean jokatzeko eta uste dut jokatu beharko luketela.

**ZE TALDEK IRABAZIKO DU TXAPELKETA?**  
Manitoux edo Errotagainen.

**GOLIK SARTU DUZU?**  
Bai, bi sartu ditut.

**ZER POSTUTAN JOKATZEN DUZU?**  
Aurrealdean jokatzeko gustatzen zait, baina taldearen beharrak direla eta, atzean jokatu behar dut.

**LIGAKO ZER TALDE GUSTATZEN ZAIZU?**  
Reala.

**LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?**  
Raul eta Luis Enrique.

## EMAITZAK

JAUJA OH ZEREZOS-ARLOTEAK	2-2
BAR CANALEJAS-PAGOMENDI	5-5
ORTZI-ETXAGI	2-1
BILDURBAREK OPEL/LAM-ERROTAGAIN	2-4
AZPEITXI JATETXEA-AGINASPI	3-6
KAIXO-MANITOU	1-19
INDARGORRI-IGANDEKOAK	5-3
POLIDEPORTIVO TABERNA-SHAKTALE	1-14
AGIRREBEÑA JATETXEA-MOSKIS	6-0
GANBARA ARI ARI-ALDOKA	2-1
AMILOTX-UVE BIKOITZA	8-3
USOA-BAYER	1-9
ARTUSAMAK-AMOZKIBAR	6-2
SLO-AUTOBEREZI	13-4
PATATUS-ETENGABE	3-6
KOMANDO PIPERRAK-FAC	1-6
UFALA-MATXAKATEGI	1-3
BAR GANBARA-GUADALEST	2-1
ERI-LA JUVE	1-2

## PARTIDUAK

**Zapatuan kanpoan**

**13:00:** A ZE FLAXA ETXAGI-MONGATXURRAK • ANTOLAKETA

**Domekan barruan**

**16:00:** EZINLEIKE-MRW • BAR CANALEJAS

**17:00:** BILDURBAREK-BAR CANALEJAS • MONGATXURRAK

**18:00:** ARLOTEAK-MONGATXURRAK • JAKINA PT

**19:00:** ERDIBITERRAK-JAKINA PT • ARLOTEAK/OILAGORRA

**Domekan kanpoan**

**12:00:** AMILOTX-TXIPIRON • JAUJA OH ZEREZOS

**13:00:** ERROTAGAIN-JAUJA OH ZEREZOS • AMILOTX

## OHARRA

ANTOLAKETA BATZORDEAK ERABAKI DU MOSKIS-INDARGORRI PARTIDUA 4-3 MOSKISEN ALDE LAGATZEA; BESTALDE, JAKINARAZI DU PARTIDUETAKO AKTAK BETETZEN DIRENEAN JOKALARI BAKOITZAREN IZEN ETA ABIZENA JARRI BEHARKO DIRELA.

## ESKOLA KIROLA

**Zapatuan Miguel Altuna berrian**

**11:00:** IPINTZA A-MARIAREN LAGUNDIA

**12:00:** ARANZADI 201-ARANZADI 202

**13:00:** ARANZADI 203-LOS CHICOS DE ALTUNA

# 120 bergarar eta 15 antzuolar

## Behobia-Donostia lasterketan

**120 bergararrek** eta 15 antzuolarrek hartu zuten parte domekan Behobia-Donostia lasterketan; laz 102 bergararrek eta 27 antzuolarrek hartu zuten parte. Guztien artean Antonio Merino (1 00' 57") antzuolarra nabarmendu zen, sailkapen orokorrean bigarren postua eskuratu baitzuen.

Bergarar onena Basilio Aranburu (1 10' 13") izan zen eta lehen emakumezko bergararra, ostera, Amaia Agirre (1 49' 48"). Aurtengo edizioan 3 emakumezko bergararrek hartu dute parte, iaz baino 3 gutxiagok.

Adinari dagokionez, lasterketa amaitu zuen ko-



Lasterketan parte hartu zuen bergarar talde bat.

rrikalari gazteena, 16 urteko Aitor Sotil izan zen (1 42' 23") eta zaharrena, ostera, 71 urteko Pako Alon-

so (2 02' 57"). Bergarar eta antzuolarren artean faroltxo gorria aurten Hilario Azkargortak eraman du (2

13' 44"). Azkargorta Marisabel Hurtadorekin batera helmugaratu zen. Garrantzisuen parte hartzea da.

### BERGARAR ETA ANTZUOLAREN SAILKAPEN EZ-OFIZIALAK. ITURRIA: FORTUNA ELKARTEA

#### BERGARA

72	Basilio Aranburu	1 10' 13"
93	Roberto Zurro	1 11' 25"
104	Manuel Aranburu	1 11' 52"
154	Javier Moreno	1 13' 10"
166	Aitor Eraña	1 13' 22"
316	Aitor Rementeria	1 16' 34"
666	Iñaki Zangitu	1 20' 16"
785	Iñaki Alberdi	1 21' 16"
833	Imanol Garcia	1 21' 42"
853	Aitor Garcia	1 21' 52"
904	Xabier Garitano	1 22' 16"
925	Felix Terrazas	1 22' 22"
1072	Oskar Maiztegi	1 23' 28"
1229	Jose Antonio Akizu	1 24' 21"
1238	Jose Mentxaka	1 24' 25"
1381	Xabier Lijo	1 25' 17"
1446	Aitor Laskurain	1 25' 39"
1551	Agustin Zumeaga	1 26' 20"
1860	Iñaki Olanu	1 28' 02"
2093	Alex Muela	1 29' 31"
2381	Fernando Agirrebeña	1 30' 55"
2398	Jose Luis Osinalde	1 31' 01"
2437	Karlos Lizarralde	1 31' 15"
2442	Javier De Borja	1 31' 16"
2476	Iñaki Irigoien	1 31' 26"
2532	Garikoitz Lazkano	1 31' 41"
2660	Karlos Aldai	1 32' 21"
2675	Imanol Cerdeira	1 32' 30"
2713	Manuel Varela	1 32' 44"
2822	Luis Mari Alberdi	1 33' 14"
2867	Ion Larrañaga	1 33' 30"
2983	Jose Angel Amasorrain	1 33' 59"
3046	Gorka Mujika	1 34' 14"

3057	Jesus Mari Labaka	1 34' 19"
3065	Jose Balentziaga	1 34' 22"
3122	Ugutx Basauri	1 34' 33"
3158	Manuel Gorospe	1 34' 40"
3195	Gotzon Mendizabal	1 34' 50"
3312	Aitor Solano	1 35' 22"
3337	Mikel Uribealago	1 35' 28"
3338	Mikel Lazpiur	1 35' 29"
3339	Iñaki Andueza	1 35' 29"
3431	Unai Alberdi	1 35' 58"
3554	Mikel Santos	1 36' 26"
3603	Martin De Pedro	1 36' 37"
3646	Miguel Angel Larrañaga	1 36' 48"
3833	Julen Narbaiza	1 37' 40"
4139	Mikel Etxaniz	1 39' 18"
4197	Ion Osinalde	1 39' 28"
4352	Teodoro Jimenez	1 40' 09"
4653	Iker Curado	1 41' 22"
4661	Manu Curado	1 41' 24"
4673	Manuel Reifs	1 41' 26"
4675	Iosu Otaegi	1 41' 26"
4677	Celestino Santos	1 41' 26"
4681	Ion Agirrezabalaga	1 41' 26"
4713	Ion Ander Garitano	1 41' 32"
4830	Jose Fermin Hernandez	1 41' 59"
4851	Ion Ugarte	1 42' 05"
4876	Luis Mari Beistegi	1 42' 09"
4914	Jon Balentziaga	1 42' 17"
4933	Aitor Sotil	1 42' 23"
5105	Iñaki Eguren	1 43' 04"
5159	Aitor Akizu	1 43' 10"
5235	Jose Ramon Balzategi	1 43' 36"
5246	Jose Luis Arregi	1 43' 39"
5283	Asier Arrieta	1 43' 47"
5289	Aitor Elkoro	1 43' 49"

8804	Roberto Cuevas	1 43' 55"
5364	Ion Berasategi	1 44' 04"
5368	Iker Etxeberria	1 44' 05"
5664	Edu Mendibil	1 45' 30"
5730	Juan Luis Aiausti	1 45' 54"
5748	Imanol Elkoroberezibar	1 45' 57"
5755	Iñaki Ugarte	1 45' 58"
5951	Alex Labaien	1 46' 48"
5996	Iñaki Arizmendiarieta	1 47' 06"
6001	Igor Basauri	1 47' 08"
6068	Ion Aranburu	1 47' 23"
6219	Aitor Inza	1 47' 53"
6330	Manolo Martinez	1 48' 31"
6371	Juan Luis Arriola	1 48' 43"
6444	Joxean Larrión	1 48' 56"
6468	Roman Laskurain	1 48' 57"
6632	Amaia Agirre	1 49' 48"
6676	Aitor Mruamendiarez	1 49' 59"
6684	Jesus Lopez	1 50' 00"
6687	Iban Loiola	1 50' 01"
6759	Iosu Bolinaga	1 50' 16"
6854	Jabier Orbea	1 50' 40"
6895	Imanol Agiriano	1 50' 55"
7002	Julian Zangitu	1 51' 28"
7070	Eñaut Uriarte	1 52' 05"
7215	Asier Elorza	1 52' 46"
7248	Lauri Askargorta	1 52' 57"
7259	Joseba Leturia	1 53' 12"
7304	Luis Maria Sotil	1 53' 28"
7347	Aitor Alberdi	1 53' 40"
7397	Carlos Telleria	1 53' 58"
7398	Iban Etxeberria	1 53' 59"
7410	Mikel Alberdi	1 54' 06"
7412	Juan Jose Lopez	1 54' 07"
7592	Joseba Larrañaga	1 55' 06"

7600	Eduardo Eguren	1 55' 07"
8030	Patxi Arriola	1 57' 54"
8092	Roman Unamuno	1 58' 37"
8204	Peio Garitano	1 59' 19"
8371	Igor Legazpia	2 00' 52"
8384	Miguel Angel Muela	2 00' 59"
8425	Felipe Iñarra	2 01' 19"
8473	Pedro Arroio	2 02' 05"
8557	Francisco Alonso	2 02' 57"
8618	Idoia Olanu	2 03' 30"
8660	Fernando Otaño	2 04' 02"
8735	Ugaitz Ugarte	2 05' 14"
8801	Gorka Marzan	2 06' 10"
8804	Jose Ramon Etxeberria	2 06' 12"
8988	Maria Pilar Barandiaran	2 09' 12"
9117	Marisabel Hurtado	2 13' 43"
9118	Hilario Azkargorta	2 13' 44"

#### ANTZUOLA

2	Antonio Merino	1 00' 57"
308	Anselmo Martinez	1 16' 26"
309	Gaizka Asensio	1 16' 26"
441	Andres Arbulu	1 17' 55"
542	Jose Mari Igarza	1 19' 08"
1327	Asier Aranguren	1 24' 55"
1498	Iker Larrea	1 26' 00"
1523	Aitor Gabilondo	1 26' 08"
3415	Juan Jose Aranburu	1 35' 54"
3811	Ander Murgiondo	1 37' 55"
4025	Jose Angel Zabalo	1 38' 42"
5609	Mikel Kerexeta	1 45' 15"
6044	Jose Luis Erostege	1 47' 18"
6327	Andoni Muñoz	1 48' 31"
6960	Gurutz Zabala	1 51' 13"



## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

## ◆ Bergara-Urretxu

Neskak.  
Domeka. 10:15  
Ipintza futbol zelaia.

## ◆ Bergara-UDA

Lehen mailako kadeteak.  
Domeka. 11:45.  
Ipintza futbol zelaia.

## ◆ Bergara-Anaitasuna

Lehen mailako erregionala.  
Domeka. 15:30.  
Ipintza futbol zelaia.

## ESKUBALOIA

## ◆ Bergara-Almen

Kadete mutilak.  
Zapatua. 16:00.  
Labegaraieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Egia

Jubenil mutilak.  
Zapatua. 17:15.  
Labegaraieta kiroldegia.

## SASKIBALOIA

## ◆ Bergara-Centro Mikeldi

Senior mutilak.  
Zapatua. 19:00.  
Labegaraieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Iraurgi

Junior neskek.  
Zapatua. 17:30.  
Mariaren lagundia.

## GIMNASIA ERRITMIKOA

## ◆ Euskadiko Txapelketa

Domeka. 12:30.  
Labegaraieta kiroldegia.

# Iñaki Mujika

## Jubenil mailako futbolari golegilea

**Iñaki Mujikak BKEko 2. mailako jubeniletan jokatzen du aurrelari postuan. Aurtengo denboraldia bikain hasi du eta bere taldearekin jokatutako bederatzita partiduetan 11 gol sartu ditu; horietatik 5 partidu bakar batean.**

**- Lehenengo aldia da partidu bakar batean 5 gol sartzen dituzuna?**

- Ez, orain dela bi urte, kadete mailan, ere 5 gol sartu nituen. Halere, partidu hartan 11 eta 1 irabazi genuen; aurtun, berriz, Aretxabaletaren kontra 3 eta 5 irabazi genuen eta gure bost golak neuk sartu nituen. Horrek meritu haundiagoa du. Zorte handia izan nuen, bost jaurtiketa egin nituen eta guztiak barrura joan ziren. Gainera taldea oso ondo dabil eta hori igartzen da.

**- Zer esaten dizute taldekideek eta entrenatzaileak?**

- Adarra jo zidaten eta nire kontura txisteak ere egin zituzten. Entrentzaileak txantxetan autografoak eskatu zizkidan eta taldekideek euri ere golak sartzen lagatzeko eskatu zidaten.

**- Firmatutako baloirik eman zizuten?**

- Ez, maila horretan diru gutxi dago baloiak erregalatzeko.

**- Aurtun taldea in-dartsu dabil.**

- Bai, oso ondo hasi gara. Batez ere oso giro ona dagoelako. Urte asko daramagu elkarrekin jo-

katzen eta gainera adin berekoak gara. Ez da normalea 2. maila jubenilean lehen urteko jokalariek izanda horren ondo ibiltzea. Talde gehienetan jokalariek bigarren urtekoak dira, hau da, gu baino nagusiagoak. Gure taldean bakarrik bi atezain dira bigarren urtekoak. Jokatutako 9 partiduetatik 3 galdu ditugu eta bigarren postuan sailkatuta gaude. Horrela jarraitzen badugu igoera faserako sailkatuko garela uste dut.

**- Zenbat gol sartzeko asmoa duzu?**

- Nire erronka 20 gol sartzea da. Lau urte daromatzat BKEn jokatzen eta

denboraldi bakoitzean batz best 20 gol sartu ditut. Aurtun ere horri eustea da nire helburua.

**- Kovacevic ala Idiakez?**

- Kovacevic ez da nire gustukoa. Idiakez ere ez zait gehiegi gustatzen, baina hemengoa da eta nahiago dut berak jokatzea.

**- Realean atzerritarrak fitxatzearen aldekoa zara?**

- Onak baldin badira bai, baina Realak fitxatzen dituen gehienak nahiko txarrak dira eta harrobitik irtendako jokalariek atzerritarrek egiten duten adina egin dezakete.



"Denboraldi honetan ere 20 gol sartzea da nire helburua".

**"Golak sartzeko taldearen laguntza ezinbestekoa da"**



Argazkia: Imanol Iriagarai

## Kantaldia Santo Tomas egunean

**G**aur, ostirala, ikasleen nazioarteko eguna dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte herriko ertainetako ikasleek. 20:00etarako, esate baterako, Skunk taldearekin rock kontzertua iragarrita dago Pol-Polen.

Garai batean ere jaialdiak antolatzen zituzten ikasleek Santo Tomas de Aquino egunean, esate baterako, institutuan. 1977ko argazkia duzue goikoa eta institutuan aterata dago. Bertan agertzen diren neskak kantalditxo eskaini zuten. Hara nortzuk diren argazkian agertzen direnak ezkerretik hasita.

**Zutik:** Miren Aiastui, Arantza Iturbe, Agurtzane Arriola eta Lurdes Olaetxea.

**Kitarra joten jarrita:** Mariasun Mujika, Ruth Bolinaga eta Monse Otazua.

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

### MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89  
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



## zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21



# "Konfidantza osoko laguna"

Claudia Schiffer

Citroën Xsara berria. Azken belaunaldiko ametsa. Claudia Schifferri konfidantza osoa ematen dion ametsa, Notario aurrean, inpaktu proba egitean, argi erakutsi duenez. Azkenaldiko segurtasun neurri onenekin osatutako ametsa. Habitabilitatezko ametsa, bere tamainari esker, bere kategoriako handienetakoa baita.

Baita bere ekipamendu osatuagatik ere: lagunduriko direkzioa, gidari airbaga, bolante erregulagarria altueran eta sakontasunean; lapurreten kontrako bebesa, blokeo elektronikoduna; beira jasogailu elektrikoak aurrean; zabaltzeko frekuentzia altuko urrutiko agintea, eta abar.

Eta nahi izanez gero... alboetako airbag bikoitzak, ABSa, klimatizagailu automatikoa... jartzeko aukera. Citroën Xsara berria da.

Azken belaunaldiko zure ametsak bere esku uzteko kotxea. Citroën Xsara berria. 1.852.000 PTatik aurrera.\*



Xsara

Citroën berria

Xsara

*Azken belaunaldiko ametsa*

Finantzaketa proiektu gomendatua, ondorengoak barne dituenak:   
 - irteera promozio ez akumulagarria eta gobernuaren dirulaguntza (Prever plana). Hil bukaera arte baliagarria, Penintsulan eta Balearetan stockean dauden turismoentzat.

Ez duzu imaginatuko Citroënek zugatik egin dezakeena

## ION AUTOAK

Amillaga 36, Bergara Tf. 76 47 49 / 76 47 73

sofa  
leku

a. eme... interiores



centro  
hogar  
muebles



grupo



# Amuebladora Mondragonesa

**a. eme. interiores**, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03

**a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92

**centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92

**sofa leku**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92